



FUNTSEZKO JARDUERAK

1. Sarrera: zer dira funtsezko jarduerak eta zergatik dira garrantzitsuak?

Funtsezko jarduerak gure fisioterapia enpresan dira, hots, gure negozioaren oinarrizko prozesu eta ekintza guztiak, bezeroei zerbitzuak eskaintzeko eta enpresaren helburuak lortzeko beharrezkoak direnak. Jarduera hauek gure enpresaren eguneroko funtzionamendua eta arrakasta bermatzeko ezinbestekoak dira. Gure kasuan, fisioterapeuten enpresan, funtsezko jarduerak hauek izan dira:

1.-Bezeroaren ebaluazioa:

Fisioterapeutek pazienteak aztertu eta bakoitzaren egoera fisikoa zehatz-mehatz ebaluatzen dugu. Honek tratamendu egokia eskaintzeko funtsezko oinarria eskaintzen du. Garrantzitsua da bezeroaren egoera ulertzea eta ebaluazioa adi egotea tratamendu egokia diseinatzeko.

2.-Tratamenduak eta terapiak:

Fisioterapeutek bezeroari tratamendu fisikoak, terapia fisikoak eta teknika fisioterapeutikoak eskaintzen ditugu, hala nola masajeak, ariketa fisioterapeutikoak, edo gorputzaren funtzionalitatea hobetzeko teknikak eskaintzen ditugu. Jarduera hauek bezeroaren osasunaren hobekuntza eta berreskuratzean funtsezkoak dira pentsatzen dugu.

3.-Aholkularitza eta prestakuntza:

Fisioterapeutek bezeroei posturaren inguruko aholkuak ematen diogu, mina ez izateko ariketa batzuk irakasten dituzte eta bakoitzaren gorputzaren konponketa lanak inguruan egiten dituzte. Bezeroaren etengabeko laguntza eta hezkuntza funtsezkoa da errehabilitazio prozesua ondo eta iraunkorra izateko.

2. Funtsezko jarduerak eta prozesuak

Funtsezko jardueren artean honako hauek azpimarratu behar dira:

- **Produktuaren ekoizpena edo zerbitzuaren eskaintza:** Gure enpresan, produktuaren ekoizpena ez denez egietn, zerbitzuaren eskaintza da egin al dugun jarduera. Honek pazienteei fisioterapiako tratamenduak, terapia fisikoak, terapia mentalak, ariketa planak, masajeak eta berreskuratze tekniken eskaintza ematen dugu. Bezeroari zerbitzu egokia eskaintzea oinarrizkoa da enpresaren arrakastarako eta ondo hazteko.



ASSA IKASTOLA

Assa Ikastola

2024-2025 ikasturtea

Batxilergo 2: Ekonomia

Canvas eredu - Funtsezko jarduerak

- **Bezeroaren harremanak eta zerbitzua:** Bezeroarekin harreman ona mantentzea garrantzitsua da, beraien beharrei erantzuteko eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko. Bezeroaren lehenengo kontsultatik hasita, tratamenduen jarraipenera eta azkeneko bisitara arte, harreman atsegina eta profesionala izatea oinarritzakoa da. Bezeroari laguntzea, informatzea eta erantzunkidetasuna eskaintzea zure enpresaren ustezko arrakastaren giltzarriak dira.
- **Marketing eta komunikazioa:** Gure fisioterapiako zerbitzuen sustapena eta komunikazioa ezinbestekoak dira bezero berri batzuek erakartzeko eta enpresa hobetzeko. Marketing eta komunikazio estrategiak, hala nola, sare sozialak eta gure webgunea publizitatea, gure zerbitzuen ospea handitzea ahalbidetzen dugu. Gainera, bezeroek lortutako emaitzak eta gomendioak ere funtsezkoak dira.
- **Hornitzaileen kudeaketa:** Fisioterapiako enpresan, hornitzaileek material terapeutikoak, ekipamendu medikoak eta bestelako baliabideak eskaintzen dituzte. Hornitzaileekin harreman egonkorra eta fidagarria izatea garrantzitsua da, eta haien zerbitzu eta produktuen kalitatea ziurtatzea ere ezinbestekoa da. Horrela, enpresaren eguneroko funtzionamendua eta bezeroei eskaintzen zaien zerbitzua ez dira arriskuan jarriko.
- **Finantzak eta kudeaketa:** Zure enpresaren finantzak egonkor mantentzea funtsezkoa da. Fakturazioa, ordainketa sistemak, aseguruaren kudeaketa, eta balantze ekonomikoak kontrolatzea ezinbestekoa da enpresaren iraupen eta arrakasta ziurtatzeko. Gainera, kudeaketa prozesuak optimizatzea eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzea ere garrantzitsua da. Finantzak ondo kudeatzen ez badira, enpresaren funtzionamendu egonkorra arriskuan egon daiteke.

Terminar de cambiarlo y de hacerlo.

3. Jardueren lehentasuna

Jarduera bakoitza funtsezkoa izan arren, zehaztu behar da zein den bakoitzaren garrantzia zure enpresarentzat. Lehenik eta behin, lehentasuna **produktuaren ekoizpena edo zerbitzuaren ematea** izango da. Hori gabe, gainerako jarduerak ezin izango dira burutu. Hurrengo lehenetsitako jarduera **bezeroarentzako zerbitzua** izango litzateke, bezeroen konfiantza eta atxikimendua lortzea enpresaren arrakasta bermatzeko funtsezkoa delako. Ondoren, **marketing eta komunikazioa** izango dira garrantzitsuak, bezero potentzialak erakartzeko eta produktuaren proposamena ezagutarazteko. Azkenik, **hornitzaileen kudeaketa** eta **finantzak** izango dira beharrezkoak, baina prozesu hauek beste jardueren ondorioz etorriko dira, eta laguntza izango dute funtsezko ekintzen egonkortasunean.

Beraz, atal honetan zuen jarduerak lehenetsi, aurreko testuko informazioan oinarrituz, baita aurreko ataletan idatzi duzun informazioan ere.

4. Ondorioa

Funtsezko jardueren kudeaketa eta lehentasunak ezartzea enpresaren arrakastarako ezinbestekoak dira. Jarduera bakoitzaren eraginkortasuna etengabe ebaluatzea eta egokitzapenak egitea garrantzitsua da. Zure enpresarentzat, ekoizpenaren kalitatea,



Assa Ikastola
2024-2025 ikasturtea
Batxilergo 2: Ekonomia

Canvas eredu - Funtsezko jarduerak

bezeroen atxikimendua eta salmenten kudeaketa izango dira ardatz nagusiak, eta horiek optimizatzea izango da enpresaren arrakasta lortzeko gakoa.